

# Eskola aliatu bila dabil

*Eskola Hiztun Bila XII. jardunaldia egin berri du Ulibarri programak. EAEko 400dik gora ikastetxek dihardu hizkuntza normalizatzeko programan. Parte-hartzaileek nabarmendu zuten koordinatuta lan egiteak duen garrantzia, gutxienez eskolak berak eta udalak.*

## ONINTZA IRURETA

KATALUNIARA atzerritarrak etengabe iristen ari dira. Eskolan katalanaren erabilera kudeatzeko metodoak aldatu behar izan dituzte arrakasta izango badute. Ez dute ordea, hizkuntza isolatuta lantzen, bazterketa soziala eta kulturartekotasuna batu dizkiote hizkuntzari.

Ez da gauza bera Kataluniako errealitatea eta Euskal Herrikoa. Hango etorkin kopurua eta hementxo ez dira alderagarriak. Alabaina, horrek ez du esan nahi atzerritik datozen haurrak eskolara doazenean, integrazioari dagokionez ezer egitekorik ez dagoenik, euskararen adibidea argia da. Ez alferrik, Irungo (Gipuzkoa) Txingudi ikastolako eta Bizkaiko Mungia Institutuko arduradunek beraien eskoletako kohesio planak azaldu zituzten. Txingudin 2008-2009 ikasturtean ikasleen %6 atzerritarra da eta Mungia institutuan %20.

Kataluniako kasuari helduz, Dolors Sabater Generalitateko Hezkuntza eta Ingurumen Zerbitzuko teknikariak atzerritar kopuru hori kudeatzeko abian jarritako sistema azaldu zuen (*Pla d'entorn* izenekoa): aukera berdintasunak, desberdina izateko eskubideak eta hizkuntzaren erabilerak bat egiten dute kulturartekotasunean. Alegia, Kataluniako eskolen erronka ez da bakarra, laukoitza baizik: iritsi berriak integratzea, eskola porrota saihestea, hezkuntza berrikuntza eta katalana erabiltzea. Beste modu batera esanda: Generalitateak aholkulariak ditu hiz-

kuntza gaietarako, kulturartekotasunerako eta bazterketa soziala kudeatzeko. Aholkulariok eskolaz eskola ibiltzen dira lanean, elkarlanean. Sabaterrek zein eredu ez duten nahi

**Kataluniako eskolen erronka ez da bakarra, laukoitza baizik: iritsi berriak integratzea, eskola porrota saihestea, hezkuntza berrikuntza eta katalana erabiltzea**

adierazi zuen: “Eredu anglosaxoiak aniztasuna errespetatzen du, hainbeste ezen gizartea zatituta dagoen. Frantzia atzerritarrak asimilatzen saiatu da, baina ez du lortu, gizartea zatituta dago. Gu beste zerbait egiten saiatuko gara. Nolabait esateko,

**La Sinia ikastetxean hezitzaile sozialak, hizkuntza irakasleak, gurasoak... eta azkenean auzoa bera proiektuaren parte egin dira**

etorritakoena errespetatzen saiatuko gara eta ez dezatela etxean gorde”.

Gaztelania/katalana dikotomia apurto dela dio Sabaterrek. Orain 200dik gora hizkuntza daude Katalunian eta katalana berrindartu

egin omen da egoera berri horretan. Alabaina, Sabaterrek, eta baita orain aipatuko dugun Carme Carbonellek ere, mezu bera eman zuten, hots, hizkuntza ezin dela banandu kulturartekotasunetik eta bazterketa sozialetik. Helburua kohesio soziala da.

**Remei: 20.000 biztanle, 89 kultura**  
Vic Bartzelonako udalerria da eta 40.000 inguru biztanle ditu. Erdiak Remei auzoan bizi dira. Duela urte batzuk Marokoko Rif bailarako amazigh kulturakoak –guretzat bere bere izenez ezagunagoak– etengabe iristen hasi ziren. Remei auzoko La Sinia eskola ghetto bihurtu zen. Carme Carbonell La Sinia eskolako zuzendariak eta beste hainbatek zerbait egiteko premia larria ikusi zuten, eskola hartakoa adibide bat baino ez baitzen. 2008ko datuen arabera 9.075 etorkin daude auzoan, 89 kulturatakoak.

Viceko Udala, Kataluniako Hezkuntza Saila eta auzoko ikastetxe guztien artean lan egitea erabaki zuten, kohesio soziala lortu nahian. Hiru ikasle mota kontuan hartuta –urritasun kognitibo eta motrizitatekoak zituztenak, egoera sozioekonomiko ahulekoak eta katalana menderatzen ez zutenak– auzoko eskola guztietan zortzi plaza gordetzea erabaki zuten. Horixe planaren abiapuntua. Hezitzaile sozialak, hizkuntza irakasleak, gurasoak... eta azkenean auzoa bera proiektuaren parte egin dira.



ARGIA

Bigarren egunean, entono edo inguru batean hizkuntza normalizatzeko lanean ari diren eragileen arteko koordinazioa izan zen ardatza. Hainbat esperientzia aurkeztu ziren, oso ezaugarri desberdineko herri eta eskualdetakoak.

**MALORES ETXEBERRIA**

ULIBARRI PROGRAMA orain dela dozena bat urte jarri zen abian eta egitasmo eta esperientzia antz egin dira 400dik gora ikastetxetan. Jardunaldian, esperientzia horietako batzuk azaldu zituzten hainbat udal-letako teknikariek, bakarrik batzuetan, ikastetxeetako ordezkariak lagunduta beste batzuetan.

Gernika-Lumoko (Bizkaia) euskara teknikariak Udaleko EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) eta ikastetxeetako normalkuntza planak nola uztartzten zituzten azaldu zuen. Bide beretik aritu ziren Irungo Udaleko euskara teknikaria edota Aiaraldeko (Urduña eta Amu-

rrio) euskara teknikariak ere. Elkarrekin egiten dituzten egitasmoak azaldu zituzten.

Buruntzaldea (Gipuzkoa) eskualdean udal eta ikastetxeen arteko koordinazioa nola bideratzen den azaldu zuen Hernaniko Udaleko euskara teknikariak, koordinazioaren zailtasunak eta onurak nabarmenduz.

Udalez gain, beste eragile batzuen arteko elkarlanaz aritu ziren Lekeitioko (Bizkaia) ikastetxeetako ordezkariak AEK eskalategiko irakaslearekin batera. Lekeiti herri euskaldunera etorritako ikasle atzerritarren hizkuntza-gaita-

• **TERMOMETROA** •

suneta eta integrazio soziala areagotzeko martxan jarri duten programaren berri eman zuten.

Nafarrek ere izan zuten lekua jardunaldian zehar. Atarrabiako nera-beekin euskararen erabilera areagotzeko egiten duten esperientziaren berri eman zuten. Egitasmoan parte hartzen ari dira Udaleko euskara departamentua, herriko euskara elkarteak eta ikastetxeak.

Esperientzia horien guztien ardatza koordinazioa izan zen, udalerriko eragileen artean eta, besteak beste, udalaren eta ikastetxeen artean.

Kataluniako San Vicenç dels Horts Udaleko hezkuntza teknikariak, Marcelina Bosc-ek, udalak eta ikastetxeak azken hamar urteotan elkarrekin lanean aritzeko egin duten bidea eta horretarako antolatu duten egitura azaldu zuen. Bartzelona inguruan dagoen herri hau Vic baino txikiagoa da, eta askoz ere erdaldunduagoa. 27.000 biztanle inguru ditu eta etorkin ugari dago, baina gehienak 60-70eko hamarkadan Espainiatik joandakoak, ez etorri berriak, eta eskola askotako jolaslekuan ez omen da hitz bat bera ere entzuten katalanez. Eskola-porrota gaintitu eta integrazio eta kohesio soziala bultzatzeko, beti ere katalana izanik komunikazio-hizkuntza, hasi ziren elkarlan horretan eta zailtasun ugari gaintituta, horietako asko udallean bertan –ez baita lan erraza departamentuen arteko koordinazioa–, Generalitateak bultzatu berri dituen Ingurumen Plan horiek (*Pla d'entorn*) eman omen diete behar zuten estalki formala eta aitortza. ■

**Txapelaburuan**  
to ibili munduan

**Narrika, 18. Donostia**  
telf. 943428299 [www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)